

# Ikasketetarako Finantzaketa

*Gazteek etorkizuna izateko, bultzada behar dute orain.*

## GAZTEEK ETORKIZUNA IZATEKO, BULTZADA BEHAR DUTE ORAIN



- 2018-2019 ikasturterako finantzaketa-hitzarmenak lotu ditugu EAEko eta Nafarroako hainbat unibertsitaterekin.
- Joan den ikasturtean milioi bat eta erdi eurotik gora bideratu genituen ikasketak finantzatzera.

## ABANTAILAK

### GAZTEEN ETA EUREN ETORKIZUNAREN ALDEKO APUSTUA

Gazteak eta beraien etorkizuna izan dira LABORAL Kutxak gizarte-erantzukizunaren alorrean egindako apustu handietako bat. Urtez urte bultzada aktiboa eman diogu haien prestakuntzari, dirulaguntzen eta finantzaketaren bidez.

Gazteak etorkizuna dira eta, beraien prestakuntza bultzatuz, gure gizartearen etorkizuna ere bultzatzen dugu.

Horregatik, joan den ikasturtean milioi bat eta erdi eurotik gora bideratu genituen ikasketak finantzatzera.

2018-2019 ikasturtean finantzaketa-hitzarmenak sinatu ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako hainbat unibertsitaterekin, gazteentzat baldintza berezietan.


Zure etorkizunerako laguntza behar baduzu, eskura dituzun finantzaketa-aukerak azalduko dizkizugu LABORAL Kutxako zure bulegoan. Zatoz eta galdetu.

## EZ BADUZU ARGI ZER IKASI, INFORMAZIO HONEK ON EGINGO DIZU

Enpresek tituludunak nahiago dituzte

Titulu baten jabe izateak ate gehiago irekitzen ditu lana aurkitzeko; izan ere, enpresa gehienek eskatzen dute betekizun hori.

Hala, datuen arabera, unibertsitate-titulua duten pertsonak eskatzen dira batez ere lanpostu kualifikatuak betetzeko: enplegu-eskaintzen % 40 baino gehiago unibertsitarioei zuzenduta dago. Horien ostean, Lanbide Heziketako tituludunak dira lanpostu kualifikatuak betetzeko hurrengo bilatuenak.



Gehien eskatzen diren 10 lanbide profilak

Lanbide batzuek urte asko badaramatzate ere "gehien eskatzen direnen" sailkapeneko goreneko postuetan, urteak joan urteak etorri, zerrenda horiek aldatu egiten dira, enpresetan behar berriak sortzen direlako eta lehen ez zeuden lanbide berriak agertzen direlako.

Sailkapeneko lanbide finko horietako batzuk honako hauek dira: medikua, arduraren handiko postuetako saltzaileak, programatzaileak, informatikariak eta ingeniariak.

Gaur egun gehien bilatzen diren eta ongien ordaintzen diren lanbide-profilen zerrenda duzue ondorengo hau:



Datuak hemendik hartu dira: "X Aniversario del Informe Adecco Professional".

